HERRI BIZIA
etorkizunaren bidean

ErrenteriakoUdala
Ayuntamiento de Errenteria

ERRENTERIAKO IRAUNKORTASUNERAKO II.EKINTZA-PLANA 2018-2025

Tokiko Agenda 21en II. Ekintza-plana

(Errenteria, 2018/02/27)

1. Esparru estrategikoa

Errenteriako Udalak bere Tokiko Agenda 21 prozesua 2001 urtearen hasieran abiatu bazuen ere, Udal-gobernuak TA21 programarekiko konpromiso sendoa 2004an islatu zuen Errenteriako Udalak Aalborgekoguntunari atxikitzean (iraunkortasunaren aldeko europako herrien gutuna, 1994. urtean, DanimarkarkoAalborg hirian ospatu zen Iraunkortasunaren aldeko Hiri eta Herrien I. Batzarrean onartutakoa).

2006ko martxoan Iraunkortasunerako I. Ekintza-plana (2006-2011) onartu zen Udal Osoko Bilkuran. Aipatu planak urtez urteko jarraipena izan du bere gauzatze-maila ezagutzeko eta, era berean, burututako jarduerekzehaztutako helburuak erdiesten laguntzen zuten baieztatzeko.

2012an ebaluatu zen plana azkenekoz eta, ordurako, %54an gauzatua zegoela baieztatu zen. Honek eta planaren beraren epe-mugak 2017-2025 epealdirako Iraunkortasunerako II Ekintza-planaren (aurrerantzean II PAL) osaketarako berrikuspen-prozesua abiarazteko beharra mahai gainean jarri zuen.

Era berean, 2012 urtearen erdialdera, Udaletxeak Errenteriako Plan Estrategikoa 2025 osatzeko lanei ekin zien. Dokumentu hau 2015 urtearen amaieran onartu zen eta udalerrirako ikuspegia eta helburu orokor batzuk zehazten ditu.

Bestalde, 2015eko irailaren 24an, Errenteriako Udala Nazio-batuen*CompactofMayors* izeneko ekimenarekin bat egin zuen, klima-aldaketari aurre egiteko tokiko plangintza kolaboratiboagoa eta iraunkorragoari ateak irekiaz.

CompactofMayors ekimenari atxikitako udalek, bat egin ondorengo hiru urteetan jarraian zehaztutako arloei buruz publikoki informatzeko konpromisoa hartzen dute:

- Lurralde-mailako Berotegi Efektuko Gasen Isurpenen Inbentariorako (GPC)Protokolo Orokorrarekin bateragarria den gure udalerriari dagokion isuritako berotegi efektuko gasen inbentarioa.
- Gure udalerriak jasaten dituen arrisku klimatikoak.
- Berotegi Efektuko Gasen isurpenak murrizteko zehaztu ditugun helburuak.
- Gure udalerriak aurrez aurre dituen ahultasun klimatukoak.

Egoera honen aurrean, II. Ekintza-planaren osaketarako 2025erako Plan Estrategikoaren osaketa prozesuan eta behin betiko dokumentuan ezarritako ikuspegia zein helburu estrategikoak hartu dira kontuan.

Halere, II TEPren osaketarako eta diseinurako Udalsarea 21ek (Eusko Jaurlaritza) "EAEko Udalerrietarako Tokiko Agenda 21eko Ekintza-planak Berrikusteko Gida Metodologikoa"n jasotako irizpideak jarraitu dira.

2025ean udalerri iraunkor bat izateko urratsak ezarri asmoz, ekintza zerrenda bat osatu da. Lanketa horretarako, honako dokumentuak hartu dira kontuan:

- 2025 Plan Estrategikoa
- Iraunkortasun Diagnosia 2013
- Errenteriako bioaniztasuna eta natura-ondarearen hobekuntza eta kontserbaziorako udal-estrategia (2013)
- Energia Iraunkortasunerako Ekintza-plana
- Oinezko eta Bizikleta bidezko Mugikortasun-plana
- Hiri-hondakin Solidoen Prebentzio-plana
- Errenteriako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana 2013-2016
- Bestelako udal-plan eta -programak

Aipatu dokumentazioaz gain, II TEPren osaketarako udaleko sail ezberdinetako arduradunen ekarpenak barneratu dira. Horrekin batera, herriko beste eragileen ekarpenak ere bildu dira dokumentua osatzeko, bai Errenteriako Ingurumeneko Aholku-kontseiluari bina bilera berezietan aurkeztuz, bai 2016ko otsailan zehar, gainerako eragile eta herritar orori parte hartzeko aukera emanez.

2. II Ekintza-planaren eskema

Udalsarea 21en gida metodologikoak TEPn osaketa ondorengo orrian jasotzen den eskemari jarraituz zehazten du. Hori dela-eta, dokumentu honek Errenteriako Iraunkortasunerako II.Ekintza Plana 2017-2025 osatzen duten ikuspegia, lerro-estrategikoak eta ekintza zerrenda jasotzen ditu.



Ikuspegia

2025. urtean, Errenteriako Ikuspegia ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonak bizi diren lurraldearena izango da: solidarioak,dinamikoak, ikasten eta berritzen dutenak, eta kalitatezko habitatean, garapen sozial eta ekonomiko arduratsua ahalbidetuko duten baliabideetan oinarritutakoa. Bertako bizikalitateari esker, pertsonak erakartzen eta atxikitzen dituen hiria (*Plan Estrategikoa 2025*).

3. Helburu estrategiko eta zehatzen zerrenda

LE1	LURRALDEAREN ERABILERA IRAUNKORRA BULTZATZEA UDALERRIKO BIZI-KALTATEA HOBETZEKO
P1.1	**Eremu degradatuak berrerabiltzea, tokian tokiko beharren araberako erabilera emateko**
E1.1.1.	Altzate garatzea, ibaia eta itsasoaren elkargune eta aukera ekonomikorako eremua dela oinarri hartuz
E1.1.2	Hiltegi zaharraren birgaitzea.
E1.1.3	Gekotor eremua garatzea, bertako espazioa lehengoratuz.
P1.2	**Hiri-eremua pertsona guztientzako hobetzea**
E1.2.1	Eremu publikoan irisgarritasuna hobetzea eta oztopo arkitektonikoak ezabatzea, batez ere gutxitasun fisikoak dituztenen mugikortasuna bermatuz.
E1.2.2	Segurtasuna hobetzea hiriko eremu publikoan.
E1.2.3	Bide-sarea berrantolatzea, hiri barruko mugikortasuna hobetu asmoz
E1.2.4	Baserritarrek beraien produktuak saltzeko dituzten guneak hobetzea, hauen beharretara egokituz
E.1.2.5	Lorezaintza plan berritzailea garatzea biodibertsitatea eta ekosistemak hiri lurzoruan txertatzeko xedez.
P1.3	**Planeamendu atsegin eta erakargarria sustatzea, baliabide ekonomiko eta erakargarria izatea baimentzeko**
E1.3.1	Eremu berde berrien garapena sustatu eta daudenak hobetu.
E1.3.2	Errenteriako Alde Zaharra birgaitu eta zaharberritzea.
E1.3.3	Hondare arkitektonikoa babestu, berritu eta kontserbatzea.
E1.3.4	Ostatu berrientzako tokiak sortzea.
E1.3.5	Ehungintzako artisautza eta Jantziaren Zentroa sortzea.
E1.3.6	Erdiko Kalean eta Beheko Kalean hutsik dauden lokaletan artisautzako tailerren haztegia sortzea.
P1.4	**Etxebizitza-parkearen birgaitzea eta hobetzea**
E1.4.1	Etxebizitza zaharren birgaitzea sustatzea eraginkortasun energetikorako irizpideak aplikatuz, bertan bizi direnen bizi-kalitatea hobetu asmoz.
E1.4.2	Etxebizitzetan irisgarritasunaren hobekuntza sustatzea.
E1.4.3	Etorkizunerako etxebizitzak diseinatzeko garaian, gizarte egituretan izan diren aldaketak (familien osaketa, gazteen emantzipazio-beharrak, etab.) kontuan hartzea.
E1.4.4	Eskumena duen entitatearekin elkarlanean, etxebizitza hutsen alokairu-plan bat sustatzea.

LE2	**NATURA INGURUNEAREN ETA PAISAIAREN BABESA ZEIN KONTSERBAZIOA BULTZATZEA, BERAU OSATZEN DUTEN ELEMENTUEN KUDEAKETA AKTIBOAREN BITARTEZ**
P2.1	**Oiartzun ibaiaren hiri-eremua ibai-parke gisa konfiguratzea, orientazioa emanez eta erakargarritasun propioa eskainiz**
E2.1.1	Ibilguaren zati ezberdinetan ibaiaren paisaia hobetzea, ibai-habitata lehengoratzea eta ibaia klima aldaketaren eragin berriei moldatzea, morfologia eta landaredian eraginez.
E2.1.2	Ibai bazterretako eta inguruetako bioaniztasuna hobetzea, habitaten, morfologiaren eta landarediaren berreskuratzea erraztuz.
E2.1.3	Fanderiako Errotaren interpretazio-gunearen eta bere sistema hidraulikoaren birgaitzea, turismo-elementu gisa erabiltzeko.
E2.1.4	Ibaiaren azken zatiaren nabigagarritasuna berreskuratzea, kirol eta aisi erabilpena ahalbidetuz.
E2.1.5	Dibulgaziorako eta komunikaziorako ekintzak abian jartzea.
P2.2	**Natura ingurunearen babesa eta eremu ezberdinen arteko loturak hobetzea**
E2.2.1	Eskumena duen administrazio-erakundearekin koordinatzea lotura ekologikorako eremuak ezagutu, mantendu eta zabaltzeko (adibidez, Aiako Harria eta Lau Haizeta, eta hauen eta alboko udalerrietarako joanetorriak bermatzeko).
E2.2.2	Landazabal atlantikoa eta landa ingurunea balioan jartzea, balio ekologiko altuko eremu gisa onartuz.
E2.2.3	Beren kontserbazio-baldintzengatik, mehatxatutako espezieen edo intereseko habitaten presentzia baimenduko duten erreka eta errekastoak ezagutzea eta ezaugarritzea.
E2.2.4	Ibaiaren alboetako 10 metroetan landaketarik ez egiteko eta haltzadi atlantiarraren berreskurapen-neurriak garatzeko lur jabegoa duten pertsonekin adostasun boluntarioak sustatzea.
E2.2.5	Naturaren kontserbaziora zuzendutako legedia betetzen dela bermatzeko, udaltzaingoari zuzendutako formazio-programa zehatz bat ezartzea.
E2.2.6	Eskumena duen administrazio-erakundeari udaleko natura ingurunea kontserbatzeko neurrien ezarpena erraztea, bereziki Anarbeko Erreserba Eremuaren aldarrikapena.
E2.2.7	Natur gune babestuen kudeaketan klima aldaketara egokitzeko irizpideak barneratzea.
E2.2.8	Aiako Harriako parke naturalaren eremua handitzea
E2.2.9	Dagoen azpiegitura berdea mantendu eta hobetzea, udalerria lurzorua areago artifizializatzearen bizkarretik hazi ez dadila saiatuz.
P2.3	**Tokiko bioaniztasuna babestea, bere kontserbazioa erraztuz eta espezie inbaditzaileen ugaritzea ekidinez.**
E2.3.1	Bai interesekoak diren bai mehatxatuak dauden landare eta animalien kontserbaziorako ikerketak egin daitezen sustatzea.

E2.3.2	Aizpitarteko haitzuloen itxiera egokitzea, bere erabilera eta kiropteroen bizi-baldintzak bateragarriak izan daitezen.
E2.3.3	Bioaniztasunerako Udal-estrategia exekutatzea, urtero burutzeko dauden ekintzak aldez aurretik programatuz.
E2.3.4	Udal-teknikariei bioaniztasunaren eta honen ebaluazioa, kontserbazio zein hobekuntzarako formazio jarraia izateko aukera erraztea.
E2.3.5	Errenteriako espezie inbaditzaileen eta klima aldaketaren eraginez sortuko diren izurriteen aurka jarduteko Ekintza-plan bat idatzi, onartu eta abian jartzea, zeinak espezie hauen hedapena prebenitu, murriztu eta ezabatzeko espezie eta arrisku-jardueren araberako kudeaketa- eta erabilpen-irizpideak ezarriko dituen.
E2.3.6	Bertako espezieen erabilera bultzatzea lehorteari eta muturreko tenperaturei aurre egiteko xedez.
P2.4	**Ingurumen arloan komunikazioa eta sentsibilizazioa hobetzea**
E2.4.1	Udalerriko paisaia- eta natura-balioak ezagutzera eman, interes handieneko espeziak barneratuz.
E2.4.2	Añarbeko Erreserba Eremuaren aldarrikapenaren aldeko komunikazio-kanpainarekin jarraitu.
E2.4.3	Natura inguruneari eta klima aldaketari lotutako ingurumen-hezkuntza bultzatzea, bai Eskolako Agenda 21en bitartez, bai beste baliabideak erabiliz.
E2.4.4	Udalaren ingurumeneko webgunean bioaniztasunari buruzko atal bat txertatzea.
E2.4.5	Bai liburuxka zein wenguneen bidez Errenteriako biztanleei espezie exotiko inbaditzaileak erabiltzearen eraginak komunikatzea.
E2.4.6	Bioaniztasunaren eta natura-baliabideen inguruan Udalak egiten dituen kontratazioetan lanetan hauen berri emateko laburpen dokumentu bat aurkezteko beharra jasotzea.
E2.4.7	Sentikortze eta erantzunkidetze kanpainak garatzea klima aldaketarako egokitzapenari dagokionean.

LE3	MODU IRAUNKORREAN EGINDAKO JOANETORRIAK SUSTATZEA, MOTORDUN AUTO PRIBATUAREN ERABILERA MURRIZTEKO
P3.1	**Oinezko eta bizikleta bidezko joanetorriak bultzatzea**
E3.1.1	Bizikleta bideak zabaltzea egungo sarearekin loturarik ez duten auzoetara.
E3.1.2	Hiri erdigunean oinezko joanetorriak errazteko ibilbideak eta oinezkoentzako guneak ezartzea, lan emankor batentzako beharrezko eremuak eta azpiegiturak kontuan hartuz.
E3.1.3	Oinezkoentzat, txirrindularientzat eta mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako hiri barruko ibilbideak markatzea.
E3.1.4	Talde berezien mugikortasuna kudeatzeko neurriak hartzea.
E3.1.5	Udaleko Mugikortasun-planean jasotako neurriak burutzea eta urtero burutuko diren ekintzen programazioa egiteko aukera ematea.
P3.2	**Mugikortasun iraunkorrari lotutako komunikazioa eta kanpainak burutzea**
E3.2.1	Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen antolaketarekin jarraitzea.
E3.2.2	Udaletxeko webgunean garraio modu iraunkorren eta hauen ordutegien berri ematea.
E3.2.3	Eskolako Agenda 21en arloan mugikortasun iraunkorra barneratzea.
E3.2.4	Bide-hezkuntza sustatzea (ikastetxeetan, helduentzat, etab.).
E3.2.5	Herritarren eta udal-langileen artean Modu iraunkorrean gidatzeko ikastaroen eskaintza mantentzea.
E3.2.6	Bizikletan ibiltzen ikasteko saioak eta bizikleta konpontzeko tailerrak berreskuratzea.
P3.3	**Garraio publikoa eta intermodalitatea sustatzea**
E3.3.1	Hiri barruko eta herriarteko autobus- eta tren-zerbitzuak sustatzea.
E3.3.2	Gune estrategikoetan bizikletentzako udal-aparkaleku gehiago ezartzeko aukera aztertzea (Merkatuzarreko parkinga, etab.).
E3.3.3	Txirrindularien eta motordun ibilgailuen arteko elkarbizitza errazteko 30 guneen sorrera sustatzea.
P3.4	**Merkataritza-jardueren motordun mugikortasuna kudeatzea**
E3.4.1	Ibilgailu elektrikoen erabilera sustatu.

LE4	KONTSUMO-ARDURATSUA SUSTATZEA NATURA BALIABIDEEN ERABILPEN ETA KUDEAKETA ERAGINKORRAREN BITARTEZ
P4.1	**Uraren kontsumo arduratsua baimenduko duten neurrien ezarpena erraztea**
E4.1.1	Zerga-ordenantzetan kontsumoaren eta sektorearen araberako ingurumen-hobariak txertatzea.
E4.1.2	Euri-uren edo araztutako uren erabilpenerako urratsak ematea (kale-garbiketak, parke eta lorategietako ureztapena, …).
E4.1.3	Administrazioan ur-kontsumoa optimizatzea.
E4.1.4	Biztanleen artean ur-baliabideen inguruko sentsibilizazioa sustatzea (Uraren Nazioarteko Eguna, etab.).
E4.1.5	Ibaiko ura kale-garbiketarako erabili daitekeen aztertzea.
P4.2	**Saneamendu- eta hornidura-sarea hobetu eta kontrolatzea**
E4.2.1	Modu progresiboan dauden isurketak ezabatzea.
E4.2.2	Iztietako HUPEtik ezkerreko aldearen hiri-kolektorea Errenteriako HUPEra arte luzatzea (trenbideko zubiaren alboan), lehenengoa kenduta.
E4.2.3	Bi kutxa handi edo ekaitzen bi andel txiki eraikitzea udalaren saneamendu-sarearen gainezkabide banatan eta Errenteriako HUPEn eraginkortasuna hobetzea isuriak, kiratsak eta kokatuta dagoen eraikinaren beraren kanpoko presentzia eragozteko.
E4.2.4	Ur-hornidura eta saneamendu-sarearen sektorizazioa eta monitorizazioa.
E4.2.5	Ur-hornidura eta sanemanendu-sarearen hobekuntzarako plangintza egin eta jarduerak burutu.
E4.2.6	Etxebizitzetan bakarkako kontagailuak instalatzea.
E4.2.7	Udalerriko sareko ur galerak murriztea.
E4.2.8	Ur baliabidearen kalitatea bermatzea.
P4.3	**Energia modu arduratsuan erabili eta kontsumoa murrizten lagunduko duten neurrien ezarpena erraztea**
E4.3.1	Tokiko administrazioaren energia-kontsumoa murrizten lagunduko duten neurrien ezarpenarekin jarraitzea.
E4.3.2	Instalazioen energia-eraginkortasuna optimizatu (klimatizazio-sistemak, bero-sorkuntza, argiteria, etab.) eta horren monitorizazio eta kontrolerako neurriak garatzea.
E4.3.3	Eraikuntzan energia-eraginkortasunerako irizpideak aplikatzea.
E4.3.4	Udal-jabetzako eraikinetan energia-ziurtapenak egiten hastea.
E4.3.5	Udalerriko etxebizitza eta ekonomia-sektoreetan energia-eraginkortasuna sustatzeko mekanismo eta pizgarri ekonomikoen bideragarritasuna aztertzea, eta, egoki bada, ezartzea.

E4.3.6	Energia Iraunkortasunerako Ekintza-planean jasotako neurriak burutzea eta urtero burutuko diren jardueren programazioa egiteko aukera ematea.
E4.3.7	Dinamika bat zehaztea urtero, sistematikoki, udalaren ibilgailu-kopuruari eta tokiko administrazioaren energia-kontsumoari (elektrizitatea, gasolina, …) buruzko datuak eskuratzeko.
P4.4	**Energia berriztagarrien erabilpena eta ezarpena areagotzea**
E4.4.1	Modu progresiboan Udal-azpiegitura eta ekipamenduetan energia berriztagarrien ekoizpen eta aprobetxamendurako sistemak ezartzea.
E4.4.2	Iturri berriztagarrietatik sortutako energia-kontsumoaren portzentajea handitu, bai administrazio-mailan, bai udalerri mailan (hiritarrak, industria, etab.), esparru honetan lan egiten duten merkaturatzaile-enpresen bitartez.
P4.5	**Hondakinen prebentzioa eta murrizketa sustatzea**
E4.5.1	Hondakin organikoen bilketa handitzea, bai autokonpostajea sustatuz bai auzokonposterako guneak ezarriz.
E4.5.2	Tokiko produktuen sustapenarekin jarraitu eta ontzi zein bilgarrien murriketarekin uztartu (vending makinak, tokiko azokak, …).
E4.5.3	Sorreraren araberako ordainketa bezalako sustapen-neurriak ezartzea, honen aplikazioak gizarte sektore kaltetuetan sor ditzakeen distortsioak saihestuz.
E4.5.4	Denda edo supermerkatuetan iraungitzear dauden elikagaien bilketa bideragarria den ala ez aztertzea, ondoren, elikagai hauek Gaztelutxo edo elikagaien bankura bideratuz.
E4.5.5	Auzoetan bigarren eskuko azokak antolatzea sustatzea.
E4.5.6	Udal jabetzako lokaletako materiala inbentariatzea erabili gabe geratu eta hondakin bihur ez daitezen.
E4.5.7	Udal eraikin eta azpiegituretan gaikako bilketa hobetzeko neurriak ezartzea.
E4.5.8	Hiri-hondakin Solidoen Prebentzio-planean jasotako neurriak burutzea eta urtero burutuko diren jardueren programazioa egiteko aukera ematea.
P4.6	**Hondakinen bilketa hobetu eta kontrolatzea, gaikako bilketa handitu asmoz**
E4.6.1	Hondakinen Udal-ordenantza eguneratzea.
E4.6.2	Bere hondakinak modu egokian sailkatuta botatzen dituena saritzeko pizgarri-sistema bat ezartzea.
E4.6.3	Landa-eremuko bilketa hobetzea, gune zehatzetako isurketak ekidinez.
E4.6.4	Hondakinentzako puntu garbi edo ekarpen-guneen sare bat osatzea, hiriaren egituraren barruan irisgarria dena.
E4.6.5	Birziklapen-tasak hobetu eta Udalerriko gizarte-, etxebizitza- eta topografia-errealitateari erantzuna emango dion Hiri-hondakin Solidoen (HHS) udal-bilketa zerbitzua ezartzea.
P4.7	**Hondakinen inguruko sentsibilizazio eta komunikazioa hobetzea**

E4.7.1	Bai IAKk bai Hondakinen Taldeak Udalarekin duen koordinazioa mantendu eta hobetzea.
E4.7.2	Sanmarko Mankomunitatearen eta gainerako erakundeekin koordinazioa mantentzea Errenterian sortutako hondakinen sortze- eta bilketa-datuak eskuratzeko.
E4.7.3	Hondakinen inguruko komunikazioa eta sentsibilizazio ekintzak sustatzea adin tarte guztietako emakume eta gizonengana iritsi ahal izateko.
E4.7.4	Hondakinen Prebentziorako Europako Astean parte hartzen jarraitzea.
E4.7.5	Aldiro aldiro udalerriko urteko-datuak eta hondakinei lotutako informazio interesgarria Udalaren ingurumeneko webgunean txertatzea.

LE5	INGURUMEN-KALITATEA HOBETU ETA SOR LITEZKEEN ERAGINAK MURRIZTU
P5.1	**Airearen kalitate ona mantendu eta bermatzea**
E5.1.1	Portu eremutik datorren aire-kutsadurari jarraipena egitea eta portuko agintaritzari indarrean dagoen legedia bete dezala exijitzea.
E5.1.2	Portuko jardueren ondorioz sortutako aire-kutsadura murrizteko azpiegituren ezarpena sustatzea, bereziki Kaputxinoetan.
E5.1.3	Udal-webgunearen bidez, biztanleriari isurpen-mailaren eta aire-kalitateari buruzko Informazioa helaraztea.
E5.1.4	Jarduera kutsagarri nagusien eta Errenteriako aire kalitatearen jarraipen eta kontrola burutzea.
P5.2	**Udalerriko zarata-kutsadura murriztea**
E5.2.1	Udalerriko zarata-kutsadura murrizten lagunduko duen Zarata Mapa, zarataren inguruko ordenantza berria eta Ekintza-plan bat osatzea.
E5.2.2	Erakunde ezberdinekin (AutoridadPortuaria, ETS, RENFE, Diputación Foral de Gipuzkoa,…) elkarlana bilatzea beraien jarduerek sortutako eraginak murrizteko neurrien ezarpena burutzeko.
E5.2.3	Errenteriako Soinu-ingurua Hobetzeko Planeko (EIHP) neurrien inplementazioa
P5.3	**Udalerriko lurzoruen kalitate ona bermatzea**
E5.3.1	Kutsakorrak izan daitezkeen jardueren jarraipena egin.
E5.3.2	Biztanleria IHOBEren polluituta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioari eta honen eboluzioari buruz informatzea.
E5.3.3	Gecotorren egin den bezala (Lekuona eremua, etab.), Udal-jabetzakoak diren lurzoruen deskontaminazioarekin jarraitzea.

LE6	ARRISKUAK SAIHESTEKO ETA JARDUERA EKONOMIKOAK MODU AGOKIAN KUDEATZEKO NEURRIAK SUSTATZEA
P6.1	**Prebentzio-politiken eta arrisku zein eragin potentzialak murriztuz ingurumen arriskuak ekiditea**
E6.1.1	Udalerriko Larrialdi-plana eguneratzea eta udaleko sail ezberdinen eskura jartzea.
E6.1.2	Autobabes planak behar dituzten eraikin publiko eta urbanizazioen babesa sustatzea.
E6.1.3	Eskumena duen erakundearekin elkarlanean, Larzabal eta Fanderia eremuak uholdeen eraginpetik ateratzeko ezarri beharreko neurri zuzentzaileak aztertzea.
E6.1.4	Udalerrian dauden jarduera arriskutsuak zehaztea, bereziki zaurtasun altuko akuiferoak dituzten lurzoru kutsatuetan ezarritakoak, eta legedia betetzen dutela baieztatzea.
E6.1.5	Klima-aldaketari aurre egiteko egokitzapen-plana idaztea eta, klimari lotutako arriskuen eta kalteen azterketa egitea.
E6.1.6	Klima-aldaketari aurre egiteko egokitzapen-planean jasotako ekintzak garatu.
E6.1.7	Udalerriko eraikinetan teilatu berdeak ezartzeko aukera aztertzea.
E6.1.8	Itsas mailaren igoerak Errenteriako azpiegituretan izan ditzakeen balizko ondorioak aztertzea.
E6.1.9	Drainatzeko hiri sistema jasangarriak (SUDS) instalatzea egokia den tokietan Saneamendu Sarearen Plan Zuzentzaileari jarraikiz.
E6.1.10	Irristatzeak gertatzeko arriskuaren analisia burutzea eta neurriak garatzea analisi horren ondorioen arabera.
E6.1.11	URAri ARPSIaren berrikuspena egin dezala eskatzea.
E6.1.12	Uholde eta lehorteei dagozkien udal plangintzetan Klima aldaketa zeharreko gai bihurtzea.
E6.1.13	Errenteriako hirigintza antolamendu orokorraren planean iraunkortasun eta klima aldaketari buruzko irizpideak baitaratzea.
E6.1.14	Klima arrisku pean dauden guneetan kokatzen diren etxebizitzen babes plan bat garatzea.
P6.2	**Ekonomia sektorearen ingurumen-hobekuntza sustatzea**
E6.2.1	Udalerriko ekonomia-jarduerek ingurumen-kudeaketa sistemak eta ekodiseinua barnera dezaten sustatzea.
E6.2.2	Ingurumen-praktika egokiak burutzen dituzten enpresen eta jardueren berri ematea.
E6.2.3	Udalerriko ekonomia-jardueren kontrol eta jarraipen eraginkorra burutzea (adibidez, erregistroa informatizatuz).
E6.2.4	Udalerriko ekonomia sektore desberdinei prestakuntza eskaintzea klima aldaketarekin zerikusia duten gaien inguruan.

LE7	**KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNDUKO DUTEN NEURRI ETA BALIABIDEAK SUSTATU ETA EZARTZEA**
P7.1	**Klima-aldaketari lotuta dauden udal-mailako planen urteroko jarraipen eta ebaluazioa egitea**
E7.1.1	Mugikortasun-planaren ezarpena urtean behin ebaluatzea eta, EIEPa, aldiz, bi urtean behin.
E7.1.2	Berotegi Efektuko Gasen urteroko kalkulua eta jarraipena burutzea, bai administrazio-arloari lotutakoa bai udalerri mailakoa ere.
P7.2	**Klima-aldaketa arintzen lagunduko duten neurriak ezartzea**
E7.2.1	Berotegi Efektuko Gasen arintzeko konpentsazio-neurrien ezarpena eta emaitzen komunikazioa sustatzea.
E7.2.2	Karbono-arrastoari buruzko ikerketak egin daitezen erraztea.

LE8	**HIRITARREN BIZI-KALITATEAN ERAGITEN DUTEN UDAL-POLITIKA GUZTIETAN PARTAIDETZA, KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA SUSTATZEA**
P8.1	**Komunikazio-euskarriak hobetzea eta eguneratzea, bertan intereseko informazioa txertatuz**
E8.1.1	Udaleko ingurumenaren ataria sortu eta abian jartzea.
E8.1.2	Udal-argitalpenetan hiritarren partaidetza-taldeek sortutako edukiak txertatzen jarraitzea eta gehiagora zabaltzea.
E8.1.3	Urtero tokiko iraunkortasun prozesuen emaitzak argitaratzea (adierazleak, ebaluazio-emaitzak, memoriak, etab.), bai barne-egiturari bai hiritarrei begira.
P8.2	**Hiritarren partaidetza prozesuak mantendu eta hobetzea**
E8.2.1	Udaletxeak garatutako ekimenak aztertu, sentsibilizazio kanpainek partaide gehiago erakarri ditzaten (horretarako sexu, adin eta bestelako aldagaiei erantzuteko beharrak kontuan izanik).
E8.2.2	IAKk ingurumeneko plan garrantzitsuenen (Errenteriako Tokiko Agenda 21en Ekintza-plana), EIEP, eteab.) jarraipena egiteko beharrezko mekanismoak ezartzea.
E8.2.3	Eskolako Agenda 21 programari zuzendutako laguntzarekin jarraitzea.

LE9	BARNE-KOORDINAZIOA SUSTATZEA IRAUNKORTASUN PROZESUEK ZEHARKAKO IZAERA IZAN DEZATEN BERMATZEKO
P9.1	**Barne-partaidetzarako guneak hobetu eta zeharkakotasun izaera bermatzea**
E9.1.1	2. Ekintza-planak jasotzen dituen ekintzen gauzatzeaz eta jarraipenaz arduratuko diren udal-teknikari eta politikariak zehaztu.
E9.1.2	Tokiko Agenda 21en jarraipenerako barne-koordinaziorako organoa eratzea eta bai jarraipenerako zein koordinaziorako egutegia zehaztea.
E9.1.3	Egun dauden partaidetzarako organoak egituratzea (IAK, gaikako batzordeak –berdintasuna, hirigintza, …-) zeharkakotasuna erraztea eta Tokiko Agenda 21en iraunkortasun-helburuak lortzea bermatzeko.
P9.2	**Iraunkotasunari buruzko barne-komunikazioa eta sentsibilizazioa hobetzea**
E9.2.1	Udal-langileriari zuzendutako ingurumen-formazioa eta sentsibilizazioa ahalbidetzea.
E9.2.2	Iraunkortasun prozesuen zeharkakotasuna bermatzeko barne-komunikazioa hobetzea.

LE10	**BIZITZARAKO GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRA SUSTAZEN DUTEN POLITIKAK BULTZATZEA, ENPLEGUA SORTZEKO BALIAGARRIAK ETA ORDAINDU GABEKO LANEN BANAKETA ERRAZTUKO DUTENAK**
P10.1	**Ekintzailetzaren kultura bultzatzea eta enpresa-ekimena babestea, bereziki ekonomia soziala eta solidarioa ahalbidetuz, eta genero irizpideak barneratuz**
E10.1.1	Epe ertainera ekintzailetzaren sustapenerako estrategia bat planteatzea.
E10.1.2	Haztegi-aldian pertsonei laguntza eskainiko dieten ekintzailetzako proiektuetan espezializatutako babes- eta tutoretza-sarea osatzea.
E10.1.3	FabLab ereduak garatzea, itxuraz kontraesankorrak diren alorretako pertsonek proiektuak, ideiak eta horiek gauzatzeko modua partekatu ahal izateko eta lan hori tokiko eta/edo inguruko testuinguru batean egin ahal izateko.
E10.1.4	Proiektu berrietan finantza-laguntza eskaintzeko formulak aztertzea eta horietan sakontzea.
E10.1.5	Ekintzaileei zuzendutako azpiegitura berrien garapena bultzatzea eta bideratzea, esaterako, proposatutako industria-enpresen haztegiak eta eko-industria eta jarduera teknologiko eta artisautzakoen haztegiak, baita coworking zentroa ere.
E10.1.6	Ekintzaile izan daitezkeenei bideratutako prestakuntza-programa esperimentala garatzea (tokikoak eta beste batzuk), Tknika eta Don Boscok eskaintzen dituzten potentzialtasunak aprobetxatuta.
E10.1.7	Udalerri mailako ekonomia zirkularra sustatzea.
P10.2	**Mikroenpresa eta ETEen dinamizazioa sustatzea**
E10.2.1	Laguntzen eta lankidetza-sareen antolaketa babestea.
E10.2.2	Oarsoaldeko Empresen Mapa Birtualaren ahalmenak ustiatzea eta horien edukian sakontzea, zerbitzuen tokiko kontratazioa errazte aldera.
E10.2.3	Belaunaldien arteko txanda eta enpresen transmisioa errazteko ekintzak lantzea.
E10.2.4	Zahartze aktiboa sustatzeko ekimen posibleak aintzat hartzea.
E10.2.5	Udalerriko merkataritza birraktibatzea lotura duten pertsonekin partaidetzarako guneak sortuz.
P10.3	**Manufaktura-jarduera, artisau-jarduera eta jarduera kreatiboa finkatu eta bultzatzea**
E10.3.1	Eskulangintzako jardueren eta eko-industriaren haztegia sortzea.
E10.3.2	Jarduera teknologikoen eta artisautzako jardueren haztegia sortzea.
E10.3.3	Euskal Herriko beharrei erantzuna emango dieten lanbide tradizionalen prestakuntza-zikloen zentroa sortzea.
P10.4	**Merkataritzako, ostalaritzako eta ostatu hartzeko eskaintza hobetzea bereizketaren eta kalitatearen bidez, beti ere, enplegua sortze aldera**

E10.4.1	Alde Zaharrean eta Iztietan hutsik dauden lokalak betetzeko ekimenak sustatzea (egokitzapena, bitartekaritza, bermea, ingurunearen hobekuntza, arrazoizko errentak, …) eta merkataritzarako egokia den inguru bat sortzeko hiri-espazioen erakargarritasuna eta kaliatatea hobetu.
E10.4.2	Udalak eta merkataritza- eta ostalaritza sektoreek parte hartu behar duten Merkataritza eta Zerbitzuen Mahaia sortzea, lankidetza formuletan sakondu eta berrikuntzan aurrera egiteko.
E10.4.3	Udalerriko seinaleak hobetzea eta udalerrirako sarreren sarbideak edo ardatzak zaindu eta egokitzea.
E10.4.4	Hiriko parkingekin (Merkatuzar, …) akordioak edo hitzarmenak egitea, merkataritza bultzateko.
E10.4.5	Altzateri eman dakiokeen hotel-erabilera posiblea aztertzea.
E10.4.6	Autokarabanak aparkatzeko eremua sortzeko bideragarritasuna aztertzea.
P10.5	**Emakumezkoen autonomia ekonomikoa sustatzea**
E10.5.1	Gizonen ardura bateratuaren sustapenerako kanpaina eta sentsibilizazio-jarduerak burutzea.
E10.5.2	Emakumeei zuzendutako lan-aukeren bilaketa, beraiek agerian ez dauden lanbideetan.
E10.5.3	Eskualdeko enpresekin sentsibilizazio jarduerak burutzea.
E10.5.4	Formazioaren bitartez emakumeak Informazioaren Teknilogia Berrietara hurbiltzea.
E10.5.5	Emakumeei laguntza eskaintzea Lanposturako Sartze-prozesuan.
P10.6	**Eguneroko bizitzaren sostengu diren lanei merezi duten balioa ematea**
E10.6.1	Familiekin zaintze, kontziliazio eta erantzukidetasunaren gaiak lantzeko materiala prestatzea.
E10.6.2	Etxeko lanetan diharduten langileei informazio, aholkularitza eta laguntza eskaintzea, bereziki emakume atzerritarrei.
E10.6.3	Gizon eta emakumeei menpekotasuna duten pertsonen zaintzaren eta zaintzailearen autobabesaren inguruko formazioa ematea.
E10.6.4	Emakume zaintzaileei zuzenduriko baliabideen arteko koordinazioa bultzatzea.
P10.7	**Gizarte-eredu berri bat sustatzea**
E10.7.1	Elkarlaguntzarako eta gure biziak diru-trukerik gabe iraunkorrak izateko ekimenak aztertu eta abian jartzea.
E10.7.2	Giza-bazterketa egoeran dauden emakumeen baldintzak hobetzeko aukerak aztertzea.

LE11	BIZI KALITATE ONA BERMATUKO DUEN GIZARTE EREDUA SUSTATZEA
P11.1	**Krisiaren eragina gehien jasan duten kolektiboen giza-bazterketa ekiditeko neurriak hartu eta jarduerak bultzatzea, genero ikuspegiarei arreta berezia eskainiz.**
E11.1.1	Giza-bazterketa egoeran aurkitzen edo jasateko arriskua duten pertsonen gaitasunen hobekuntza eta autonomia-garapena suspertu eta bultzatzea.
E11.1.2	Energia txirotasunaren analisia egin eta jarduteko protokolo bat garatzea.
P11.2	**Emakumeen aurkako indarkeeria prebenitzeko eta jendea sentsibilizatzeko kanpainak burutzea**
E11.2.1	Emakumeen aurkako indarkeriaz prebenitzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea.
E11.2.2	Emakumeentzako erreferentziazko espazioak eta tokiak sortzea, elkarren artean esperientziak partekatzeko, gaitasunak eskuratzeko, babes-sareak sortzeko, elkarri laguntzeko, bakarka eta taldean indartzeko eta abarrerako.
E11.2.3	Koordinazio-protokolo bat osatzea, indarkeria jasaten duten emakumeei arreta hobea eskaintzeko.
E11.2.4	Arreta emateko zerbitzuetan lan editen duten profesionalak trebatu eta sentsibilizatzea.
P11.3	**Hirian dauden kultura eta balio desberdinak elkar ezagutzeko jarduerak sustatzea**
E11.3.1	Diskriminazioa ezabatzeko giltza diren sentsibilizazio- eta hezkuntza-jarduerak burutzea.
E11.3.2	Aurreiritziak eta bereizketa-jarrerak aitortzera eta horiek jasaten dituzten pertsonei eta gizarteari (oro har) buruzko ondorio kaltegarriak (bazterkeria, txirotasuna, …) agerian jartzera zuzendutako proiektu kulturalak eskaintzea.
E11.3.3	“Bizilagunak-La familia de al lado” ekimenarekin jarraitzea.
P11.4	**Klima aldaketa Errenteriako gizarte ereduan barneratzea**
E11.4.1	Klima aldaketaren arriskuak (bero kolpea, deshidratazioa, etab.) pertsona talde sentikorrenekin (haurrak, pertsona gaixo nahiz hirugarren adinekoak, etab.) lan egiten duten pertsonen osasun prebentzioko jardueretan txertatzea.
E11.4.2	Errenterian dauden pertsona talde desberdinen gain -adin txikikoak, etorkinak, hirugarren adinekoak, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak, etab. barne- klima aldaketak dituen ondorenei buruzko analisia egitea.
E11.4.3	Errenteriako gizarte politiketan klima aldaketaren arriskuak baitaratzea.

LE12	UDALERRIKO AISI- ETA HEZKUNTZA-ESKAINTZA ZABALDU ETA HOBETZEA
P12.1	**Ikaskuntzako, aisialdiko eta harremanetako eremu berriak sortzea**
E12.1.1	Errenteriako herritarren aukerak zabaltzea ezagutza, informazioa eta gizarteratzea lortzeko.
E12.1.2	Kalitatezko zerbitzu-eskaintzara sarbidea bermatzea.
E12.1.3	Irakurketa eta liburutegira joateko maiztasuna handitzea, Errenteria irakurketako eta ezagutzako herri bihurtzen lagunduz.
E12.1.4	Liburutegiaren erabilera gizarte mailako garapenerako eta integraziorako tresna zein bizitzako zentro gisa sendotzea.
E12.1.5	Dantzagunea eta Arte Eszenikoen Zentroaren sorreraren bitartez Errenteria dantza eta arte eszenikoen erreferente gisa sustatzea.
P12.2	**Hiritarren artean bizitza osasuntsua izateko ohiturak sustatu eta erraztea**
E12.2.1	Garraiobide "aktiboak" garatzea eskolarako (Eskolara Oinez proiektua), industrialdeetarako eta abarretarako lekualdaketa espezifikoen planak eta espazio publikoen arteko loturak ahalbidetuz.
E12.1.2	Jarduera fisikoaren jardunbide egokiek, elikadura osasungarriak, garraio aktiboak eta abarrek dituzten onuren gainean kontzientzia sortzeko komunikaziokanpainak eta beste ekimen batzuk urtero garatzea.
E12.1.3	Jarduera-aukera zabalagoa eskaintzea adinekoei, ezintasunak dituztenei, gaixotasun kronikoak dituztenei bideratutako eskaintza jasota, eta talde horientzat egokitutako jardunbide egokien gidak prestatzea eta zabaltzea.
E12.1.4	Hezkuntza-sistemaren, elkarteen, kirol-kluben eta kirolaren arloan inplikatutako Administrazioaren maila ugarien arteko loturak indartzea.
E12.1.5	Kirol-instalazio espezifikoak ondo hornituta daudela ziurtatzea.
E12.1.6	Biztanleria aktiboa izateko jarduera fisikorako bizi-baldintza egokiak (hirigintza arlokoak, ekonomikoak, …) sustatzea.
P12.3	**Euskarak ohiko erabilera eta erabilera normalizatua izan dezan lortzeko jarduerak indartzea**
E12.3.1	Euskararen erabilera hobetzea eremu pribatuan, profilen/kolektiboen arabera bereizitako estrategiaren bidez (egoiliar berriak, euskal hiztunak, adin taldea, familia-gurasoak, auzoak…).
E12.3.2	Euskararen erabilera normalizatzea Administrazioan eta zeregin pedagogikoak eta informaziozkoak bultzatzea, euskararen alde egin dezaten.
E12.3.3	Lan-eremuan euskalduntzeko ekintzen garapena babestea (saltokiak, enpresak…).
E12.3.4	Diskurtso berri bat garatzeko eta zabaltzeko eta euskaldunak trinkotzeko helburua duen DIKOMA proiektua bultzatzea.
E12.3.5	Kultura-jardueratan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak babestea eta garatzea, komunikazio-lanetan ere indarra jarrita.

E12.3.6	Toponimia tradizionalaren berreskuratze-lanak sustatzea, udalerriko hizkuntza- eta kultura-ondarea delako.
E12.3.7	Euskararen erabilera aisialdiko/kiroleko jardueretan bultzatzea (Irrien Lagunak, etab.).
E12.3.8	Euskara-saila Hizkuntzaren Sailean bilakatzea, udalerriko hizkuntza-errealitatea modu egokian kudeatzeko.
E12.3.9	Euskara doan ikasteko aukera sustatzea.

LE13	HIRI ADIMENTSUA: SMART ERRENTERIA
P13.1	**Udal-zerbitzuetan hiri adimentsuaren filosofiarako sinergia eta integrazioa bilatzea**
A13.1.1	Errenteriako biztanleek ezagutzarako, inforrmaziorako eta gizarteratzeko aukerak zabaltzea. Udal-zerbitzuen integrazio eta kudeaketa (argiztapen publikoa, trafiko-kamerak...)
P13.2	**Adimen garapen zehatzak**
A13.2.1	Zerbitzu desberdinetarako garapen zehatza: argiztapenaren kudeaketa, garraio publikoko zerbitzuen kudeaketa, ur-kontagailuen irakurketarako zerbitzu zentralizatua, herritarrentzako wifi irekia, garraio publikoaren zerbitzuen jarraipenerako APP-a, etab.